

Gipuzkerazko sermoi bat Leitzan

MIKEL OLANO IRURTIA*

1. Zalantza gutxietsia dagoen garai honetan, agian duda-muda gehiegi erabili dut argitarezara noan testuaren idazkeraz nahiz egileaz¹. Nire esku-tara iritsitako plegua, sinadurarik gabea, XVIII. mendeko apez izandako Martin Fermin Zabaleta leitzarraren idazkien artean azaldu zen, eta zalantzarik gabe beronek idatzitakoa zela etsi zuten testua helarazi zidaten lagunek. Aitzitik, irakurraldi bat aski izan nuen testua gipuzkeraz idatzia zela konpre-nitzeko, eta orain ere iritzi berekoa naiz hamaikatan irakurri ondoren. Beraz, horra zalantza eragin zidan aierua: apez leitzar hark idatzi ote zuen gipuzke-rako testu hori?

XVIII. mendeko Nafarroako eta Gipuzkoako soziolinguistikaren berri due-nari, hau da, orduko gipuzkeraren kemenaz zeozer dakienari, halako aurki-kuntza batekin azkarregi irudikortzea gerta dakiok, hau da, literatur euskal-kiaren alde makurtu den idazle nafar bat aurkitu duela uste izatea. Eta, hala-xe, ni neu ere Zabaletak gipuzkeraz idazteko erabili zituen arrazoen inguruan gogoeta egiten hasia nintzen, badaezpada ere zalantzari beste tartetxo bat gor-detzea erabaki nuenean.

Grafologo baten esku utzi nuen azken erantzuna. Sermoiaren idazkera eta Zabaletak sinaturiko eskuizkribuena erkatu ondoren, bi letra horiek idazle berari ote zegozkion ikastea izan zen bere lana. Erantzuna? Grafologoak ez du izan, jakina, testuaren egilea nafarra ala giputza zen ebakitzerik, baina han-diena, bederen, ziurtatu dit: sermoia ez zuen Zabaletak idatzi, nortasunez oso bestelakoa zen gizaki goibel eta apalago batek baizik. Sermoigilea nor zen ikasteko bideak zabalik daude beraz, zabalegi aukeran.

* Euskal Filologia ikasia.

¹ Eskerrak zor dizkiot eskuizkribua argitaratzeko aukera eskaini didan Roberto San Martin jau-nari, Nafarroako Liburutegi Orokorrean Ondare Bibliografikoaren Bulegoko arduradun diharduena. Eskerrak zor dizkiot baita ere, Leitzako liburutegiko arduradun den Jose Luis Huarte adiskideari, lan hau burutzeko bidea zabaldu baitzidan.

2. Orain berriro Nafarroako Liburutegi Orokorrak bereganatu plegua –Zabaletaren oinordekoek gordetzen zuten euskarazko bakarra– berri iduri dago, eta letra irakurterraza du gehiengan, testuari zirriborro itxura ematen dioten zuzenketa frankotxoz ziprztinduta egonagatik ere.

Testuak bi manamenduri buruz dihardu; aurreneko zatia, pleguaren orrialde terdi batean idatzia, bigarren manamenduari buruz mintzo da, eta bestea, bigarren orrialdearen erdi eskasean, hirugarren manamenduari buruz, biak ala biak goiburua erdaraz dutela: *2º Mandamiento* eta *3º Mandamiento*, hurrenez hurren².

Antza denez, sermoilaria aste bakoitzeko manamendu bati edo biri buruzko iruzkina egiteko asmotan zegoen, eta bigarren manamenduz ari denean aurreko astean aipaturiko lehenbizikoa gogoratzen du: «*Aditu cenduan gaur zortci, lembicico edo lenengo mandamentuac eracusten digula, nola Jangoicoa amatu, siñistu, esperatu, eta eman berari dagoquion erreverenciæ*»³. Entzuleen adimenari ohartarazten dion hasierako *aditu cenduan* esamolde horretxek nire ustez guztiz ziurtatzen du eskuizkribua sermoi bat dela.

Bestalde, testu orijinala dela –hots, ez itzulpen bat– ziurtatzera ausartu gintezke, horixe adierazten baitute pleguan zehar ageri diren zuzenketa ugariak. Gainera, bigarren manamenduari buruzko iruzkinean azaltzen den aipu bibliografikoa («*Vér. Yepes. Vida de la Santa*») orijinaltasun horren alde mintzo dela dirudi, jendaurrean irakurtzeko itzulpen hutsa izatekotan ez baitzatekeen, nire ustez, halako aipurik jasoko.

Idazkerari dagokionez, ez daiteke esan estilo ederrik ez ulerterrazik erabiltzen denik, zenbaitetan mordoilo samarra ere bada eta⁴, baina, haatik, klarki ageri da idazleak idazkera jaso egin nahi duela, eta franko dira testua dotoretzeko eta osatzeko erabiltzen dituen baliabideak. Esaterako, sarritan –behar baino maizago aukeran– idazleak argitasuna edo zehaztasuna bilatzen duten sinonimo bikoteak erabiltzen ditu, *edo* juntagailua lagun, hala nola, *lombicico edo lenengo, maldicioa edo biraba, dañu edo calteren bat, nasten edo alborotacen, premia edo necesidad, arreta edo cuidadoarequin, ottura edo costumbre*, etc.

Jaso samarra ez ezik, zenbaitetan testua oso didaktikoa ere gertatzen da, eta izkribuaren pasarterik interesgarrienetakoak, hain zuzen, birau motak esplizitu deskribatzen dituzten haiek iduritu zaizkit, adierazkortasun biziko esaerak erabiltzen baitira: «*Maldicioa edo biraba da lagun progimoarentzat dañu edo calteren bat escatcea, nola dan esatea, deabruac eraman dezala, errebes⁵ equin dezala, acaba dedilla, lepoa ausi dezala, eta beste guise onetacoac ondo ica-*

² Bigarren manamenduari buruzko pasarte luzean bestea halako hiru denez, artikuluan zehar azalduko diren adibide gehientsuenak bertakoak izanen dira, eta ez diet zeinu berezirik atxikiko; hirugarren manamenduaren pasartetik harturiko hitz edo esaldi bakanak aipatzean, aldiz, (III) zeinua agertuko da.

³ Zabaletaren garaikide izandako Joakin Lizarraga Elkanokoak (1748-1835), honela errimatu zituen lehenbiziko hiru mandamentuok (Ik. Lizarraga 1990: 10): “1. Jangoicoa sinétsi, onétsi, ta adorá-tu: / Ezperén, obé, ezpacína mundurá-tu. / 2. Non ere dén maldicio eta juraméntu, / Ez-tá faltáco án miséria eta escarm(en)tu. / 3. Jangoicoari bere egúnac ez-tiónac eman ná-i, / Calte bere buruá-i, irabá-ci aiceá-i, goraintzi Deabruá-i”.

⁴ Ikus esaldi hau berau: «Premia edo necesidadarequin juramentu eguitea da, eguitea prudencia-requin, arreta edo cuidadoarequin, erreverenciarequin, eta cer eguiten duala daquiála».

⁵ Hitz hau ulertzeko ikus Azkueren hiztegan “Errebesatu (Gc), errebesau (Bc), vomitar, vomir”.

rengarriac (sic) baña alaere ain sarritan cristavan artean aditcen diranac». Eta beherago, birau motak areago bereiztean, sermoiak hiketari heltzen dio: «*[Biraba] Deseozcoac dira, botatcen diranean proximoari esaten dan gaitz ura etortceco intencio edo deseoarequin, nola dan videgaveren bat edo charqueria bat eguin duanari esatea ler eguiño al dec bada, deabruac eramango al au bada, eta guise onetacoac*».

3. Artikuluaren hasieran aipatu bezala, testu honen berezitasunik aipagarrienetakoa, eta niri bederen deigarrien iduritutakoa, darabilen idazkera giputza da. Aipagarria eta deigarria bada, bai, baina ez, alabaina, horren harri-garria, orain berriro zenbait hizkuntzalarik Nafarroako ipar-mendebaldeaz emandako argibideek berretsi egin baitute XVIII. mendean geroztik joera gipuzkerazale indartsua gertatu zela. Zuazok bere sailkapenetan ongi deskribatu duen bezala (Ik. 1998: 218-222), gizarteko harremanek eta eragile soziolinguistikoek bultzatuta Euskal Herriko erdialdeko hizkerak –Gipuzkoakoek bereziki– sarrera bizkorra izan dute mugako eskualde nafarretan; eta Zabaleta apezaren paperen artean aurkitu gipuzkerazko sermoia, hain zuzen, horren agergerri liteke, izan ere nafar haien zat predikurako hizkerarik egokiena, erdugarria, ez Nafarroan bertan baizik eta auzo Gipuzkoa *euskaldunagoan* zegoela baitirudi. Jimeno Jurioren ikerketa berrietan, esaterako, ederki ikas daiteke joera gipuzkerazale hau batik bat XVIII. mendeko Nafarroaren erdal-duntze azkarrak prestatu eta abiarazi zuela (Ik. 1998: 138):

Cuando el centralismo borbónico presionaba para imponer por todos los medios en sus dominios la lengua castellana, se produjo en la Provincia una corriente de apoyo e impulso de la *lingua navarrorum*, el idioma autóctono. No tuvo parangón en Navarra, donde la que el jesuita pamplonés José Moret llamó *patria Vasconum lingua*, marginada y preterida, sufrió en pocos lustros el mayor retroceso geográfico y social de toda su historia. Esta dualidad de comportamientos desembocará en las dos situaciones diferentes vividas por la lengua vernácula en los antiguos Reino y Provincia.

Beraz, Iruñerriko euskara ahultzen hasi zenean, ezari-ezarian nafar hiriburuak gure herriotako euskaldunen kultur gune izateari utziko zion, eta aldi berean hizkuntzako indar sare berriak antolatzen hasiko ziren bertan, euskalki guztien artean gipuzkera literatur eredu eta, oro har, kultur eredu bihurtuko zelarik. Sare horien hedapenean, dudarik ez, Elizak zerikusi handia edukiko zuen, aurkezten ari garen sermoiak berak iradokitzen digun bezala⁶.

Aurreko horrekin zerikusi duelakoan, aipa dezadan XIX. mendean ongi sartu arte Aresoko eta Leitzako herritarrak maiz samar joaten zirela –bi erreinuen arteko mugaz gaindi– Berastegira *sendotza* egitera. Aspaldiko ohitura haren berri eman digu, besteak beste, Leitzako eliz-liburuetatik hartutako

⁶ “Mientras el País se castellanizaba” dio Jimeno Juriok, “en Gipuzkoa se produjo un importante movimiento de promoción de la lengua vasca, en el terreno de la gramática y la literatura y en el del uso popular. Sus mejores paladines no fueron las instituciones públicas. Lo fue el clero secular y regular, singularmente los jesuitas encabezados por Larramendi. Ellos proporcionaron a la lengua una base científica. Ellos y otros religiosos, como los franciscanos y capuchinos, la prestigiaron y promocionaron desde los pulpitos”. (1998: 139).

1746ko dokumentu batek, Martin Ferminen osaba Fermin Zabaleta abadeak sinatua hain zuzen ere: «*Certifico yo Dn. Fermin de Zabaleta Abad de la Parroquia de la Villa de Leyza que estando de Visita en la de Berastegui el ittmo. señor Dn. Gaspar de Miranda y Argaiz obispo de este obispado de Pamp.na fui convocado por Dho. señor ittmo. a dha Villa para que concurriese con mis parbulos, confirmandos y en la confirmacion que asistiendo yo celebro en los dias 19 y 20 de maio de 1746 = fueron confirmados las creaturas siguientes...*».

Herri arteko bilera haiek mugaz gaineko harreman sakon baten tontorra baizik ez ziren izanen ziurrenik, baina esan gabe doa halakoetan eta bestelakoetan gurutzatzen ziren *ondasunen* artean hizkuntza izanen zela oinarrikoena eta, era berean, eragingarriena. 1861. urtean, ordea, Gasteizko Elizbarrutia sortzarekin batera, Iruñekoak Gipuzkoako parrokien ardura galdu zuen, eta halaber galdu zen arestian aipatutako sendotzaren ohitura aspaldiko hori.

Gorago aurreratu bezala, ordea, XVIII. mendearen erditsura arte euskaldun nafarrek, mugaz bestaldera begiratu gabe, erreinu zaharraren hiriburutik bertatik jasoko zuten euskaraz jantzitako kultur uhina, gero eta apalagoa izanagatik ere gaur arteko hizkeran arrastoa utzi diguna. Guk dakigula bederen, aldez edo moldez Leitzarekin zerikusi duten euskarazko testuen artean, bakarra da aurkezten ari garen hau baino zaharrago dena: 1626. urtean Erromako “Rota” delako epaitegiak Leitzako bi elizgizonen arteko auzi batean emandako epai baten itzulpena, hain zuzen. Testu horretako *amaborz, atra* eta *dute* bezalako aldaerak ez bide dira Leitzako hizkeraren lekuko –J.M. Sartrategik, testua argitaratzean, ongi antzeman zion bezala (Ik. 1978-79: 236)–, baina, halere, XVII. mendeko idazki hori lekuko nabarmena dugu: behiala hartan euskara Nafarroako hiriburuaren eta inguruko herrisen arteko komunikabide izaten zela frogatzeko balio digu bederen –bai baita oraindik horren zalantza egiten duenik–, horrek zekarkeen ondorio guztiarekin: «*eta yminico dut Letrac eta trasladua eliza onen ateari erasidich guztien notorio den*» dio, hain zuzen ere, epaiaren hondarreko esaldietako batek (Ibidem: 237).

4. Alderdi linguistikoari heltzera noan honetan, esan dezadan ez dudala testuaren mailaz mailako hizkuntz azterketa xeherik egin. Idazkia franko laburra da eta edonork egin lezake bere gustuko estatistikaren bat⁷. Dena den, sermoiaren idazle ezezagunak darabilen idazkera mota nolabait identifikatzen saiatuko naiz, eta –artikuluaren izenburuaz geroztik ia gai beraren haritik ari bainaiz– batik bat alderdi dialektologikotik inguratuko natzaio. Baina, deus baino lehen, ikus dezagun zer gauzari deitu diodan *gipuzkera* artikulua honetan. Egiari zor, hemengo *gipuzkera* ez da Bonapartek 1863an deskribatutako hura izanen, ezta askoz berriroago Zuazok zortzi ezaugarritan azaldutakoa ere (Ik. 1998: 217). Testu honetan agertzen diren bereizgarri giputzak, nortasun haundikoak izanik ere, ez dira asko; bestetik –Zuazoren sailkapenaren irizpideekin jarraituz–, mendebaldeko eta erdialdeko euskalkiek batera dauzkaten ezaugarri ugari daude testuan, eta ez da falta mendebaldeko bereizgarri zaha-

⁷ Grafiaz ari garela, esaterako, Larramendiren ekarpentzat jotzen den *e* aurreko *tz*-ren erabilerarik ez dugu aurkitzen testu honetan (Ik. Lakarra 1985: 243), *tc* grafiaren bide zaharra baizik: *deitcea, onratcen, atcera...* *itzequin* da salbuespen bakarra, behe-rago *itzaquin* (III).

rrren bat. Beraz, nik *gipuzkera* deitu hori estuegi hartu beharrean, har bedi, oro har, Nafarroako mendebaldeko hizkerekin muga egiten duen ezaugarrien multzo gisa.

Nafarroako hizkerez ari garela, ezinbestean Leitzakoa erabili dut testuko idazkeraren alderagarri; ezinbestean diot, batetik hobekien ezagutzen dudana delako eta, bestetik, horixe bide zelako Martin Fermin Zabaletak erabiltzen zuena.

Gipuzkerarenak ez ezik bizkaierarenak ere badiren ezaugarriei dagokienez, hitz bukaerako *-oi* diptongoa dugu testuan (Ik. *arrazoi* (III), Leitzako hizkeran ohiko den *arrazobe*-ren lekuan)⁸. Orobat, Euskalerrriaren erdialdeko eta mendebaldeko formak dira geroaldiko adizki *eguiñgo* eta *izango*, gaur egun Leitzan ohi diren (*e*)*iñen* eta *izanen* ez bezalakoak. Ikus, baita ere, *izan* aditzaren lehenaldiko *zan* eta *zala* formak, Leitzako *zen* eta *zela* ordeztuz, edota menpeko atzizkiekin *-a-* hartzen duten *dan*, *dala*, *dalaco*, *danean*, *diranac* bezalako adizkiak, Leitzan *-e-*dunak baizik ez diren bitartean; sermoian barrena, *ez delacoa* jaso dut sail honetako salbuespen bakar. Gipuzkera nahiz bizkaiera baitako ezaugarri hauen artean kokatu dut, era berean, *ondo* aditzondo, Leitzan beti *ongi*. Are adierazgarriagoa da, moduzko eta kausazko esaldietan testuak agertzen duen ‘galdera hitza + *-n*’ egitura, *nola dan*, *non etzayon*, *certatic nai zayon* bezalakoetan. Leitzako hizkeran gaur egun askoz arruntagoak dira *bait-* aurritzkiarekin burutzen direnak, baita hizkera kontuan herri giputzagoa den Areson bertan ere: “*Emen Gipuzkoan bezelatsu itzeitzen da, mua ba nola baitao*” (Olano 1998: 264). Egia esatera, hizpide dugun testuan arras gutxi azaltzen da *bait-* aurritzkia, *noribait* izenordea eta *baitaere* juntagailua salbuespen baitira. Mendebaldekotzat har daitezkeen hitzen artean *ezaguera* dugu, testuan zehazki *ezagurarequin*. Aurrekoarekin batera, aipagarria iduritu zait *bear* hitzaren agerpena “lan” adierarekin: *bearrean empleatcea* (III). *OEH*-k dioenez, adiera hori Bizkaian ohikoa izaten da, Gipuzkoan adibide batzuk jaso dira eta Iparraldean bakanka baino ez. Bestetik, sermoigileak erabilitako *ausi* aldaera mendebaldekotzat jotzen du hiztegi berak, eta gipuzkeraz XIX. mende erdira arte *autsi* baino arruntagoa izan omen dela dio; idazle nafarren artean, berriz, Lizarraga Elkanokoaren *autxi* salbu, (*h*)*autsi* izan omen da aldaera bakarra. Eta, sail honekin bukatzeko, non kokatu asmatu ez dudana hitzen bat aipatu beharko nuke, hala nola, *batzuac* eta *batzuatan*, *OEH*-ren arabera fray Bartolomek eta Txirritak darabiltena.

Testuari aire giputza dariola esan dut behin baino gehiagotan, hain idazki laburrean batik bat adizkien nortasunak eragiten duela jakinki. Nolanahi ere, adizkeraz landa, bada bestelako bereizgarriren bat, hala nola gipuzkeratzat jo izan den [x] fonema, testuan <j> grafemaz adierazia. Leitzan gaur egun [x] ebakitzen direnen artean *juramentu*, *Jesus* eta *Jauna* (III) ditugu sermonean, baina leitzar zaharrek oraindik *yustizi* eta *yoan* ahoskatzen dituzte testuan *justicia* eta *joan* direnak. Adizkerari dagokionez, testuko *dijoa* “doa” adizkia Leitzako *die* formaren oso ez bezalako dugu; *izan* aditzean *-e-* erroa azaltzen da *guera* (III) agerraldian, Leitzan *gaa*; *edun* aditzaren erroa, halaber, *-e-* da testuan, *badet*, *dec*, *degun*, *degula*, Leitzako *-u-* edo *-o-* bidekoen ordeztuz: *dot*,

⁸ XVIII. mendeko Leitzan *arrazoe* esaten bide zen. Honelaxe (*arrazoezcora*) agertzen da behin Leitzako hizkerara itzulitako XIX. mendeko dotrinan, baina bitan *arrazobe* (*arrazoven* eta *arrazobezcoa*). Ik. Pagola 1995: 577, 587 eta 588.

dok, *duun* eta *duula*, hurrenez hurren. Arraro samarrak dira *dua* “dute” eta *ditua* “dituzte” bezalako adizkiak, garai hartako Tolosaldean, eta Leitzan bertan, hurrenez hurren *due* eta *ditue* izatea espero baitzitekeen. Beharbada *-a* pleonastikodun formatatik abiatuta sortuko ziren halakoak (Ik. Altuna 1995), baina zoritxarrez erantzuna ez dago nire esku.

Bestalde, testuaren gipuzkerari salbuespenak bilatzeko garaian, hau da, mugaz Nafarroranzko ezaugarriak bilatzerakoan, zinez daudenak baino gehiago aurkitzeko arriskuan eror gintezke. Esaterako, gaur inork gutxik emanen luke gipuzkeratzat *becatu* hitzaren hasiera ahostuna; baina, XIX. mendearen amaieran *p*-dun aldaera nagusitu zen arte, idazle gipuzkoarrek erruz erabili omen zuten forma ahostun hori (datu hauek eta hurrengoak *OEH*-ren bidez alderatu ahal izan ditut). Iduripen berdintsua gerta dakiguke *barren* hitzarekin (Ik. *barrengoquin*); Leitzan inguruko herri gipuzkoarretan *barru* izaten da aldaera bakarra, baina, XIX. mendearen aurretik batik bat, ez omen dira falta *barren*-en adibide giputzak. Iduripenokin bukatzeko, gaur egun ekialdekotzat joko genukeen *deusere ez valio izatea* esaldia aipatuko dugu: garai batean *deus* ez egitura bizkaieran ere bazen, eta Iturriaga eta Iztueta gipuzteke gure sermoigilearen oso antzeko esaldietan erabili zuten: *deus balio izan*.

Datorren multzo honetan, salbuespenak sartuko ditut, hau da, idazleak baztertu edo ezkutatu nahi zituen baina zirrikituetatik itzuri zitzaizkion zenbait ezaugarri fonetiko eta bestelako “txokokeria”; hots, sermoigilearen hizkeraren ezaugarri bide direnak. Grafologoaren iritzia jaso aurretik, nik hain zuzen Leitzakotzat jotzen nituen ezaugarri hauek, nahiz eta Gipuzkoako Goierri ere oso antzekoak jaso daitezkeen. Esaterako, *I(K)A > I(K)E* bilakaerari dagokionez, testuan, honako lekukoak ditugu: *injurie*, *excelencie* (III); *guise* (beti, bost aldiz, honelaxe); *eguié* (baina bi aldiz *eguiarequin*, behin *eguiaren* eta beste bitan *eguiá*); eta *erreverencie*, *erreverencie* (III) (behin *erreverenciequin* eta beste behin *erreverenciaric*). *U(K)A > U(K)E* bilakaerari dagokionez, *modutecoac* da gauzatzen den aldi bakarra, Leitzan gaur esaten den bezalaxe; baina, besteak beste, behin *modua* (III) ageri da, bi aldiz *Jauna* (II eta III) eta behin *Jaunac* (III). Sail honetantxe, hirugarrenik, zenbait adizki bitxi aipatuko ditut: esaterako, *etzazquioa* “ez zaizkie”, 3. pertsonaren datibo gisa *-oa* atzizkia duena, Leitzan, Ezkurra eta Eratsungo hizkeren bereizgarri⁹, nahiz eta *dioela* bat ere (“diela”) azaltzen den. Aurreko hori baino eremu zabalagoa iristen dute, berriz, 3. pertsonaren ergatibo atzizkia *-oa* duten adizkiek, hala nola *dioa* eta *zioan* (eskuizkribuan *ezpadioa* eta *bacioan*, hurrenez hurren), gaurko Leitzako hizkeran ez ezik Amezketako gipuzkeran ere entzun baitaitezke (Ik. Altuna 1995: 223): *dioa* “diote”.

Azken atal honetarako, gaur egun Leitzako ingurutik hasi eta ekialdera samar begiratzen duten hizkuntz ezaugarri zenbait utzi ditut. Begi eman, konparaziora, prolatibo atzizkiei: «*Juramentua da deitcea Jangoicoa gauzaren baten testigutaco*». Egun, *-tako* atzizkia, beste zenbait aukerarekin batera, Nafarroa Garaia gehiengan eta Zuberoan erabiltzen da (Zuazo 1998: 225). Baina atzizki *berezi* horretaz gain, erabilera zabalagoa daukan *-tzat* atzizkiaren

⁹ Ik. XIX. mendeko dotrinan (Pagola 1995: 595): “Cergatic deitcen zayoa oi bienaventuranzac?”. Eta Leitzan jasotako *zaioa* “zaie”: “Beste batzui, berriz, [gazta] xuabexkoa iruitzen zaioa...” (Olano 1998: 343).

azalpen bat ere bada testuan: *eztu besteric nausitzat* (III). Bestetik, partizipio hutsean eraikitako erlatiboazko perpausa dagoela iduritu zait honako honetan: «*deabruac eraman ora onembeste costa citzadan*». Horrako *ora* hori zer den jakitea ez da batere erraza, baina dena dela ere, *eraman ora* delako egiturak erlatiboazko bat dirudi. Zuazoren arabera (Ibidem 212), egitura horrek Baztanen, Aezkoan, eta Iparraldean (Lapurdikoko hego-mendebalean izan ezik) bizirik dirau, Leitzan bezala: “Etzeuken gose txarra! Eman guzik arrapazka yan ditto” (Azpirotz 1967: 6). Bukatzeko, Nafarroa Garaian eta Iparraldean ohi-koa den bezala (Ik. *OEH*), honako esaldi trakets honetan *heldu* aditza “etorri” esanahiaz ageri zaigu: «*Beste motivoa vicio madaricatu au uzteco cristavac da, pensatcea emendic eldu zaizquion calte icaragarriac*». Auzo Gipuzkoako herrietan *datozkion* beharko zukeen *eldu zaizquion* horren ordaina.

5. Edizioaren ezaugarriei dagokienez, esan gabe doa egindako egokitza-pen apurrak testua aisago ulertze alde egin ditudala. Esaterako, lerro aldaketak zehazki adierazi ditut < / > zeinuarekin, eta honela jatorrizko hitz-zatike-ta gorde da, adibidez, *Jan- / goicoa*, *ema- / ten*, *jura- / mentu...* Bestalde, eskuizkribuan aditza izena eta adizkia elkartuta ageri dira lautik bitan: *eracustendigula*, *guedinadilla...*; baita *leguesanta*, *izensantu*, *baitaere* eta *noladan* bezalako hitz taldeak ere; transkripzioan, ordea, horiek guztiak bereiz idaztea erabaki dut. Azkenik, esan dezadan zenbaitetan irakurketa ilun eta zail suertatu zaidala; hauetan guztietan, oin ohar baten bitartez adierazi dut zer irtenbide bilatu dudan.

Oraingo ez dut sermoigilearen nortasuna bilatzen aurrerago egiterik. Nolanahi ere, hemen azaldutakoak ikusita, uste dut gutxiri harririk zaiola XVIII. mendeko Leitzan –bertako moldeaz idatzitako testurik ezean– gipuzkerazko idazkiak erabili izana. Literatur euskalki horren ahalgoak ezagunak dira, ez horrenbeste bere hedabide eta joerak, baina oraindik ere bateko nahiz besteko gehientsuena ikasteke dugula iduri zait.

* * *

2º Mandamiento.

Aditu cenduan gaur zortci, lembicico edo lenengo mandamentuac eracusten digula, nola Jan- / goicoa amatu,¹⁰ siñistu, esperatu, eta eman berari dagoquion erreverencie [sic], aditcera ema- / ten zayola ala obra barrengoquin nola campocoaquin. Modu miragarri batequin pasatcen / da Jangoicoaren legue santa, eracustera nola onratu bear degun itzequin, deitcen zayola bere / izen guciz Santuari, eta baita ere eragozten digula desonrat[c]ea¹¹ artcen¹² degula aoan izen santu / au erreverenciaric gave. Au guertatcen da bata maldicio eta virabaquin, eta bestea jura- / mentu guezurrezcoaquin. Maldicioa edo biraba da lagun progimoarentzat dañu edo calteren bat / escatcea, nola dan esatea¹³, deabruac eraman dezala, errebes eguin dezala, acaba dedilla, / lepoa ausi dezala¹⁴, eta beste guise onetacoac ondo icarengarriac (?) baña alaere ain sarritan cris- / tavan artean aditcen

¹⁰ Koma ondoren *eta* ezabatu da.

¹¹ Beharbada *e* da falta dena: *desonratc[e]a*.

¹² *arten* idatzi da, eta geroago *c* erantsi.

¹³ Badirudi azpian *esaten* idatzi dela, eta jarraian, ezabatuta, *danean: esaten danean*.

¹⁴ Subjuntiboazko lau esaldi hauek, ezabaketak eta zuzenketak egin aurretik, honela zeuden idatzita: *deabruac eramangoal au, errebes eguingo alduc* (?), *acabatuco alaiz, lepoa ausico alde*.

diranac. Birabac dira bi modutecoac, batzuac deseozcoac, eta besteac / desio gavecoac. Birau desio gavecoac dira botatcen diranac esaten dan calte ura proximoari / etortceco vorondate gave, nolatan icaratceagatic¹⁵ esaten danean ler eguiño al dec bada. / Birau oec berez becatu mortalac ezdira non eta proximoari escandaloa ematen etzayon / cergatic proximoari calteric nai eztion, baña beti dira guchiena [sic] becatu benialac, eta / onengatic bota bear eztiranac. Deseozcoac dira, botatcen diranean proximoari esaten dan / gaitz ura etortceco¹⁶ intencio¹⁷ edo deseoarequin, nola dan videgaveren bat edo charqueria bat eguin duanari / esatea ler eguiño al dec bada, deabruac eramango al au bada, eta guise onetacoac. Oec beti dira / becatu mortalac, cergatic lagun proximoari gaitz aundia nai zayon; eta ezta asco güero / damutcea; Judas traidoreari damutu citzayon Jesus saldua, baña provechu gave, eta ala / baldiñ botatceco demboran ¹⁸ezagutcen badu gaizqui esaten duala, eta ondorean damu- / tuagatic orduan deseo char ura izan, da becatu mortala. Vicio itsusia cristavan arteraco: / asco bear luque Jangoicoac eragozte¹⁹ bat bacarra ere ez esateco: eta gure Jesusec / eracutsi ciguna, bada aimbeste desprecio, aimbeste injurie eguiteda, esatea erric nasten edo / alborotatcen²⁰ cebillala, tripai bat zala, demoniac [sic] berequin cituala, eta guise onetacoac / norc esan dezaque cembat? eta orregatic ere eranzuten cieran²¹ pacienciarequiñ, umildadeare- / quin, eta sufrimentuarequiñ. ona guc cer eguiñ bear degun Jesusec eracutsi. Beste motivoa²² / vicio madaricatu au uzteco cristavac da, pensatcea emendic eldu zaizquion calte icara- / garriac, bada bereala galtcen du Jangoicoaren gracia, eta ceruraco derechoa, eta onengatic / esaten du Sn. Pabloc birauguilleac eztirala Ceruan Sartuco. Gañera mundu onetan ere²³ cer calte eta desdichac etzazquia etortcen? :: [sic]

Juramentua da deitcea Jangoicoa gauzaren²⁴ baten testigutaco, nola dan esatea²⁵, Jangoicoac / salvazioric²⁶ ezdidala, deabruac eramam nazala, viciric muguitu eznadilla, illic gueldi nadilla / onela ezpada, edo au eguiñ badet, eta guise onetaco modu asco. Juramentuac²⁷ guezurraren gañe- / an eguiten badira, ²⁸edo gauza seguro ezdaquiala²⁹ edo duda duala beti dira becatu / mortal: ³⁰Esaten doua [sic] Jauna batere etzuan balio, ura dala medio / etzayo iñori calteric etorri; gaztoago [sic] oraindic deusere ez va-

¹⁵ -ra- artizkia geroago erantsi da, *icatceagatic* baitzen jatorrizkoan idatzitakoa.

¹⁶ Geroago erantsi da.

¹⁷ *intencioa danean* zegoen idatzita, eta *-a danean* ezabatu da. Ezabatutako honen gainean idatzi da: *edo deseoarequin*.

¹⁸ *baldiñ* ezabatu da.

¹⁹ *-ztea* atzizkia beste zerbaiten gainean idatzi da. Hasieran *erago-* (?) *eduguitcea* idatzi zela ematen du.

-ztea atzizkiaren ondoren puntu bat dagoenez, esaldia honela utzi nahi bide zen: *asco bear luque Jangoicoac eragozte*.

²⁰ Hitz honek oraindik birizik dirau Leitzako lexikoan. Hona nola jaso zuen Azpirotzek (1963-64): «Sobresaltar. Sobresaltarse. *Albotatu ninduten. Albotatu nai*».

²¹ Dirudienez, zalantza egin da adizki hau idaztean, eta ez da oso ongi irakurtzen *cioan*, *cien* edo *cieran* idatzi den, litekeena azken hau izatea bada ere.

²² Hitz honen irakurketa ez da batere argia.

²³ Bigarren *e* bokala, ilunduxe, apenas bereizten den arren, *ere* irakur daitekeela ematen du.

²⁴ *-ren* atzizkia ezabaturiko zerbaiten gainean idatzi da.

²⁵ *esatea* ordez *esaten danean* idatzita zegoen.

²⁶ *salvazioric* idatzita zegoen, eta ondotik *c* gaineratu zaio.

²⁷ *-ac* atzizkia geroago erantsi da.

²⁸ Antza denez, koma artean *beti dira* idatzita zegoen, gero ezabatua.

²⁹ Adizkiaren lehenengo *a* bokala *i* baten gainean idatzita bide dago.

³⁰ Honako hau guztia ezabatu da: *baña juramentua eguiten bada*.

lio izatea, cergatic orduan des- / precio aundiagoa eguiten zayo Jangoicoaren aunditasunari, eta beragatic da becatu mor- / tal izugarriagoa. Bana [sic] juramentua eguiten bada eguiarequin, justicia edo ezagurarequin, / eta premiarequin da gauza ona eta Jangoicoa onratcen dana. Premia edo necesidadearequin³¹ juramentu egui- / tea da, eguitea prudenciarequin, arreta edo cuidadoarequin, erreverenciarequin, eta cer eguiten duala / [sic] daquiuala. Eta cer premia edo necesidade dua gauzan salzalleac instante oro esaten duanean, deabru- / ac eraman ora onembeste costa citzadan, eta cuarto batzucac edo erreal bat irabazteagatic / an dijoo guezurra? O eta cembat becatu mortal eguiten dituan³² oec, cergatic batzuatan egue / esanagatic, beste ascotan da guezurra, eta beren ottura edo costumbre gaiztoa dala medio / jar[tc]en³³ dira instante oro guezurrarequin³⁴ esateco peligroan, eta ala eguiten ditua³⁵ becatu mor³⁶ / talac Jangoicoac bacarric daquian adiña. Gauzaren bat galcen bazayo³⁷ noribait, eta ezpadioa / siñistu nai, orduan juramentu eguitea ezta becatu premia dalaco.

Juramentu eguitea justiciarequin da eguitea gauza onagatic, nola dan limosna bat eguingo duala, edo / Hospitalea visitatuco duala, eta guise onetacoac. Baña eguitea juramentu gauza gaiztoa eguiteco / da becatu mortala.

Juramentu eguitea eguiarequiñ³⁸ da berac esaten duan bezala eguiaren gañean eguitea, edo bere / uste osoan eta beretzat batere dudaric gave eguia izatea. Baña dudaric badu ala izango³⁹ ez / delacoa, eta alaere⁴⁰ juramentu eguiten badu, da becatu mortala. Yru condicio oequin juramentu / eguitea da gauza ona eta Jangoicoa onratcen dana: ala aditcera eman zuan Jangoicoac berac / Monja batequin. Au oraindic novicia zala, sendatu zuan Sta. Teresa ☩ Jesusec accidente gaizto bate- / tic Zaragozaan. Santa canonizatceco informacioa eguiten zebilzala, joan citzayon Comisarioa juramentu artcera ea eguia zan; baña novicia gassoa juramentuaren izenac ere icaratcen zuan / eta etzuan eguin nai izandu, esaten bacioan ere eguin cezaqueala, cillegui zala orduan. Atcera / biurtu citzayon lenagoco accidentea, eta ezaguturic zala Jangoicoaren castigua, eguin zuan / juramentu, eta guelditu zan sendaturic beste milagroa eguiten zuala.

Ver. Yepes. Vida de la Santa⁴¹

3.º Mandamiento.

Arrigarria da⁴² manera edo modua gordetcen duana gure Jangoicoac beraren amorio, eta onra- / ri dagozquion mandamentu Santuetan. Da beraren Magestade Jangoicozcoa Jauna gurea / titulu, edo motivo ascogatic, eta gu guera bere siervo eta morroyac arrazoi beracgatic: eta zor /

³¹ Honen ordez, *Justiciarequin* idatzita zegoen.

³² *u* geroago erantsi da.

³³ *tc* taldea tinta une batek estalixea bide dago.

³⁴ *z* idatzi aurretik *s* edo *c* idatzi dela ematen du.

³⁵ *u* geroago erantsi da.

³⁶ Ez da gidoirik begiesten.

³⁷ *galcenbazayo* idatzi da. Nolanahi ere *galcen*, baina ez *galdetcen*.

³⁸ *-arequiñ* atzizkia geroago idatzita bide dago, baina ezin da irakurri azpian dagoena.

³⁹ *-go* atzizkia apur bat bereiz idatzi da, eta jarraian zerbait ezabatu da.

⁴⁰ Beharbada *alere*, tinta une batek ilunduxe ageri baita *al* eta *ere* artekoa.

⁴¹ Ohar bibliografiko hau *in margine* eta goitik behera idatzita ageri da eskuizkribuan.

⁴² *Arri-garriada* idatzi da, non gidoiaren lekuan zerbait ezabatu den.

onengatic escatcen du Jaun nagusia bezala dagoquiona, eta guc⁴³ morroyac bezala eman bear- / dioguna. Morroyac alaco lealtadea bear dio bere nagusiarri, non eztu besteric nausitzat / ezagutu bear eta guchiago beraren etsayequin buru bat eguiñ: au⁴⁴ gucia eracusten digu eta / aguintcen digu lenengo mandamentuan. Morroyaren beste obligacioa da ematea nagusiarri / erreverencie eta errespetoa, despreciatcen ezduala beraren icena, ⁴⁵ezta ere eman ezduen faltaric, / eta ezta ere guchitu beraren excelencie edo auditasunic [sic] bera onratcen duanic: au⁴⁶ aguiñtzen digu / bigarren mandamentuan. Baña oraindic badu morroyac beste obligacio bat, eta da umildadea, / servitzoa [sic], eta bearrean empleatcea nagusiaren vorondatea dan bezala: eta au da Jangoicoac / aguintcen diguna gucioi⁴⁷ irugarren mandamentu Santuan, itzaquiñ, eta obraquiñ, anima eta / gorputzaquin servitu dezagula. Eta ondo izango balitz ere gau eta egun befiere aspertu gave / au eguita, baña beguiratcen dioela Jaunac vicia gordetceco naita nayecco bearrai, eztu / aguiñtzen eguiñ ditzagula beraren servitzoa obra beressa oec, ezpada egun señalatuetan, / beste egunetacoa gure vorondatera uzten duala.

AIPATU BIBLIOGRAFIA

- ALTUNA, F., 1995: "Pleonasmo baten historiaz: *debea* "dute" bezalako adizkien inguruan", *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, XXIX-1, 219-244.
- AZPIROZ, J. M., 1963-64: "Azkue jaunaren iztegia osatzeko Nafarroako Leitze-n bildutako itz-bilduma", *Euskera*, VIII-IX, 317-335.
- 1967: "Azkue jaunaren iztegia osatzeko, Nafarroako Leitze-n bildutako itz-bilduma", *Euskera*, XII, 5-24.
- BONAPARTE, L.-L., 1863: *Carte de sept provinces basques, montrant la délimitation actuelle de l'euscara*, Londres.
- JIMENO JURIO, J. M., 1998: *Navarra, Gipuzkoa y el Euskera, siglo XVIII*, Pamiela.
- LAKARRA, J. A., 1985: "Literatur gipuzkerarantz: Larramendiren Azkoitiko sermoia (1737)", *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, XIX-1, 237.
- LARRAMENDI, M., 1745: *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence, y latín*, San Sebastián.
- LIZARRAGA, J., 1990: *Urteko igande guzietarako prediku laburrak*, Frantzisko Ondarra Ed., Euskaltzaindia, Bilbao.
- MITXELENA, K., 1987: *Diccionario General Vasco-Orotariko Euskal Hiztegia I [DGV]*, Euskaltzaindia, Bilbao.
- 1964: *Textos arcaicos vascos*, Madrid, Minotauro. Facsímil: Anejos del *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, XI, San Sebastián, Diputación Foral de Guipúzcoa, 1990.
- OLANO, M., 1998: *Areso eta Leitzako hizkerak*, Aresoko Udala, Leitzako Udala; Nafarroako Gobernua.
- PAGOLA, R. M., ALKIZA, E.; BEOLA, A.; IRIBAR, I.; IRIBAR, J.J., 1995: *Bonaparte ondareko eskuizkribuak: iparraldeko goi-nafarrera* (2 eta 3 liburukiak), DEIKER eta Euskal Ikaskuntzen Institutua, Bilbo.
- SATRUSTEGI, J. M., 1978-1979: "Contribución al fondo de textos antiguos vascos", *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, XII-XIII, 227-245.
- UBILLOS, J. A., 1785: *Christau doctriñ berri-ecarlea*, Tolosa.
- ZUAZO, K., 1998: "Euskalkiak, gaur", *Fontes Linguae Vasconum*, nº 78, 191-233.

⁴³ Ergatiboaren -c atzizkia beste zerbaiten gainean idatzi bide da.

⁴⁴ *au* idatzi da *a* konbentzional baina handi batez.

⁴⁵ *eta* ezabatu da.

⁴⁶ Ikus 44. oharrean esandakoa.

⁴⁷ Badirudi azken *i* datiboa *c* baten gainean idatzi dela.

LABURPENA

Nafarroako Liburutegi Orokorrak, Martin Fermin Zabaleta (1729-1802) elizgizon leitzarraren ondare ziren hainbat testu eta liburu eskuratu ditu orain berriro. Hauen artean eta besteak beste, gipuzkeraz idatzitako sermoi bat azaldu da, antza denez aipatu elizgizon horrena ez den beste esku batek idatzia. Sermoigilearen zinezko nortasunera hurbildu nahian, artikulua egileak testuaren estraineko azterketari ekin dio, bertako idazkeraren kokapen dialektologikoa mugarritzeko saioan.

RESUMEN

La Biblioteca General de Navarra ha adquirido recientemente lo que fuera parte importante del patrimonio bibliográfico de Martín Fermín de Zabaleta, clérigo leitzarra del siglo XVIII. Entre los cientos de páginas y cartas adquiridas, ha aparecido un sermón escrito en dialecto guipuzcoano, redactado por una mano diferente a la del citado Zabaleta. El autor del artículo trata de identificar la procedencia exacta del dialecto empleado por el sermoneador, como medio de aproximación a su verdadera identidad.

RÉSUMÉ

La Bibliothèque Générale de Navarre a récemment acquis une partie importante du patrimoine bibliographique de Martín Fermín de Zabaleta, clerc de Leitza dans le 18^e siècle. Parmi les centaines de pages et lettres acquises, il y a un sermon écrit dans le dialecte de Gipuzkoa et rédigé par quelqu'un qui n'était pas Zabaleta lui-même. L'auteur de l'article essaiera d'identifier l'origine exacte du dialecte employé par le sermonneur, comme moyen d'approximation à sa véritable identité.

ABSTRACT

The General Library of Navarre has recently acquired what constituted a significant part of the XVIII-century Leitza clergyman, Martín Fermín de Zabaleta's bibliographic patrimony. Among the hundreds of pages and letters has appeared a sermon written in the Guipuzcoan dialect, in a different hand to that of the aforementioned priest. The article attempts to identify the exact origin of the dialect used as a clue to the true identity of the sermon's author.